

# HI ANAI!

## **Balorazio proposamena**

Gure proiektua sortzeko garaian argi eta garbi genuen zerbait berria bilatzen ari ginela; benetako arazo bat konpondu ahalko duen produkturen bat.

Betidanik hitz egin izan ohi da zentzumen galerek pertsonen egunerokoan eragin ditzaketen arazoetaz. Baina beti aipatzen direnak ikusmenaren eta entzumenarena dira; usaiaren zentzumena galdu dutenen arazoak aldiz, itzalean egon dira beti. Hortaz, gure produktua haiei laguntzeko bideratua dago, hau da, gizarte erantzukizuna duen produktu bat eskaintzen dugu.

Produktu hau berritzailea dela uste dugu, ez baitaude horrelakorik asmatuta. Egia da, dagoeneko usaimenik gabe jaio direnei bideratutako produktu bat sortua dagoela. Asmakuntza hori sudur artifizial bat da; gasen bidez usain ezin dezakeen pertsona batek, usaiak desberdintzea ahalbideratzen duena.

Gure produktua berriz, dastamenean oinarritzen da, usaiak desberdintzeko ahalmenaren %40a hor baitago. Horrelako arazoak dituzten pertsonak lau zapora bakarrik desberdintzen dituzte, beraz, 4 zapora basikoetatik abiatuz gure produktua aurrera eraman dugu. Zapora hauen nahasketa eginez, hautematen den usaiaren antzeko zapora bat egiten da eta horrela usaimena ez duten pertsonen arazo gehienak konpontzen ditugu. Beraz, guk eskaintzen dugun produktua usaien sentzore bat da, anosmia dutenen arazoak konpontzen saiatzen dena.

Ordezko produkturik ez egotea da merkatuan bereizten gaituena. Hortaz, bezeroak gu ordaintzeko prest egongo liratekeela uste dugu. Egia da, ordezko produktua izan ez arren, lehen aipatu dugun sudur artifiziala antzekoa dela, horren prezioa 82 dolarrekoa da eta guk eskaintzen dugun proposamena teknikoki hitz egiten sinpleagoa denez prezio baxuagoa eskaini dezakegu. Beste aukera bat prezio beran eskaintzea da, horrela, merkataritza- marjina handiagoa lortuko genuke. Beraz, hasierako prezioa 75 euroren ingurukoa izango lirateke.



Hau da guk eskaintzen dugun produktuaren prototipoa.

Ezkerreko irudia sentsorearen atzealdea da eta bertan filtroa aurkitzen da; kalitate oneko filtroa, usaia ondo hautemateko. Ezkerrean berriz aurrealdea aurkezten da; forma geometrikoetan zaporeak sartzen dira (oinarrizko 4 zapore) eta gero mekanismo zentrifugatzaile baten bidez zaporeak nahastu eta loru nahi den usaia egiten da. Erdialdean berriz, goitik ikusiaren irudia dago, hor ikusi daiteke ahoan sartu behar den zatia.

Laburbilduz, erabiltzeko erraza, sinplea eta oso erabilgarria da.

Hemen duzue gure web orrira sartzeko esteka!

<http://hi-anai.mozello.com/>